



Rachmaninov aldarrikatuz

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAK, bere abonuko bosgarren kontzertuarekin, aukera ematen digu gogoeta egiteko, konpositore errusiar ezagunenetako bati buruz, munduan aski ezaguna den Sergei Rachmaninovi buruz hain zuzen ere. Zergatik gogoeta edo hausnarketa hau, hain ospetsua eta entzuna bada? Arrazoi batengatik: kritikak beti gutxietsi duelako konpositore gustagarri hau, agian publikoak maite-maite egin duelako haren musika (hori txarra al da?), edo, agian, bere garaiko abangoardian ez egoteagatik. Azterketa txiki bat merezi dute bi kontsiderazio hauek, batez ere azkenekoak. Abangoardiako produktuak (beti ulertzen den moduan) bermatzen al du kalitatea, edo haren transzendentzia? Zenbat aldiz ez ote dugu kaskarkeria besterik aurkitzen modernitate etiketaren azpian? Rachmaninov, egia da, ez zen artista iraultzailea, baina inork baino hobeto jakin zuen uztartzen hilberria zen erromantizismoaren liluragarritasuna, harmonia eta orkestrazioaren ehundura berriak, Errusiako folklorea eta Estatu Batuetatik zetozen erritmo eta tendentziak. Horrez gain, garai guztietako entzuleek mirestu dute Rachmaninoven musika, eta piano-jotzaileek asko zor diote, instrumentu horretarako benetako perlak egin baitzituen errusiarrek.

Perla horietako bat entzun genuen abenduaren 13an Euskalduna Jauregian. Mozarten *Don Giovanni* operaren obertura (fin eta sentitua) jo ondoren, Rachmaninoven 3. kontzertua piano eta orkestrarako *Re minorrean*, op. 30 interpretatu zuen Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Günter Neuhold-en batutapean,

Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Günter Neuhold. **Bakarlaria:** Mateusz Borowiak (pianoa). **Egitaraua:** Mozart eta Rachmaninov-en obrak. **Lekua:** Bilboko Euskalduna Jauregia. **Data:** Abenduaren 13a.

eta Mateusz Borowiak piano-jotzaile poloniar gaztea bakarlaria izanik. Bertsio ederra izan zen, zalan-tzarik gabe. Mateusz Borowiak sari guztiak jaso zituen Maria Canals izeneko Bartzelonako piano lehiaketaren azkeneko edizioan eta, begi bistan geratu zenez, merezimendu osoz. Obraren deabrukeria guztiak erraz-erraz gainditu zituen, munduko gauza sinpleena izango balitz bezala, baina, horrez gain, kontzertuaren mami guztia atera zuen, indarra, lirismoa...

Hutsen bat aipatzeagatik, esan behar da konplikatua izan zela momentu txiki batzuetan bakarlariaren eta orkestraren arteko sinkronizazioa, baina, tira, edertasunak gainditu egin zuen. Propina bat bota zuen pianistak: Rachmaninoven *Étude-tableau* bat, zinez zaila, zinez erakargarria.

Saioaren bigarren zatian, Mozart erromantikoenaz gozatu genuen. 40. sinfonia *Sol minorrean*, K. 550, hain famatua, eta hain berezia bere erritmo bizi eta asaldurazko giroagatik, amaiera polita izan zen kontzertu pasionatu baterako. ■

Montserrat Auzmendi

